

Euskal nazionalismoa eta internazionalismoa

Emilio López Adán «BELTZA»

Doctor en medicina

Autor de «Nacionalismo vasco y clases sociales»

Ed. Txertoa

«Del carlismo al nacionalismo burgués»

Ed. Txertoa. -San Sebastián 1978

Gaurko emanaldia hiru partetan banatuko dut:

- Lehen: Gure historia modernoan eta Konstituzioa baino lehen gertatutakoa.
- Bigarrena: Konstituzioa eta gero gertatzen ari dena.
- Azkena: Ondorio batzu etorkizunerako.

Oso garai historiko mugatu bati lotuko naiz, Francoren heriotzeatik gure egunetara doana, alegia; erabiliko ditudan kontzeptuak, ikuspen sozialistari (sozialista iraultzailerari) lotuak izango dira; eta aipatuko dudan internazionalismoa, langileen arteko internazionalismoa izango da, ikuspundu iraultzaile batetatik ikusita bereziki.

Orain dela hamabost urte, abertzale ezkertiarrek nondik gentozen gogoratuko dizuet. Euskalerrian, eta memoria historiko pertsonala dugunetik, beti arazo nazional bat izan dela ongi dakizue; 1960etako hamarkadan, haustura bat gertatzen da nazionalismo honetan, ETA protagonista duelarik.

Beraz, betiko nazionalismoan agertu zen ETA. Baina teoria aldetik zerbait gaineratu zitzaigun. Non ikusi genuen? Nondik hartu genituen adibideak eta teoriak?

Lehenik, beste herri kolonizatuetan, nahiz europearrak (Chipreko gertakizunak aski berriak ziren), nahiz beste kontinenteetan (Algerian, Vietnamen, Polisarioak, e.a.). Ikasitako edo eztabaidatutako gauzen artean, bi

aipatuko dizkizuet, ez garai haietan inportanteak zirelako, gure gaurko egoerarekin zerikusi esannahitsua daukatelako baino.

Bata, Algeriari dagokio. Algerian, independente izan baino lehen, ba zen «oin beltzak» deitzen zen giza multzo bat. Gehienak, klase arruntetako langileak ziren: beharginak, artesauak, batzutan laborariak ere; kontzeptu marxista barnean kontsideratuak holako ziren, benetan. Langile nahiz burges txiki, aspaldidanik bizi ziren Algerian; askotan, belaunaldi bat baino gehiago zeramaten han (kolonizazioa XIX mendean gertatzen da, eta independentzia 1960 inguruan). Beren artean, batzuek ba zuten bai Algeriaren berezitasunaren kontzientzia, bai eta ere langile egoeraren kontzientzia.

Prozesu iraultzailea martxan ezarri zenean, polemika interesgarri bat gertatu zen independentista arabe eta Partido Komunistaren artean. Independentista arabeen teorian, Algeria, nazio gisa, kolonizazioa baino lehen existitzen zen, eta bere askatasun nazionala izan beharko zitekeen lehen-goko egoerari itzuliaz, hots, nazio arabe baten egoerara itzultzea. Gainera, frantsesek utzitako gauza gehienak, zapaltzaile eta kolonizatzaileen obra gisa (teorian behintzat) kontsideratuak, ukatuak izango zitezkeen.

P.C. arentzat berriz (PC hau, hasieran Frantziakoa zen, besterik gabe, eta gero Algeriako PC bilakatu zen), kolonizazioa baino lehen ez zen naziorik, baizik eta leinu ezberdinak edo, nahi ba duzue, arabe sakabana-tuak, baina ez nazio bat. Nazio bat agertzekotan, proiektu gisa agertzen ari zen, klase herrikoi guztien obraz: hau da, Algeria berria egiteko parte hartzen ari zirela bai jatorrizko arabeak bai eta «oin beltzak» ere: Baina gauzak konplikatuxeagoak ziren: nahiz eta sozialki oinbeltzak zapalduak izan, hizkuntza aldetik, administrazioa aldetik eta abar, frantsesak edo hizkuntza frantsesakoak zirenez, askoz hobeki bizi ziren arabeak baino. Eta P.C.a ibili zen kontradikzio honetan zatikatua... Ondorioz, batzuek OASen parte hartu zuten (OAS, Algeria Frantziari mantendu nahi zuen eskuin muturreko talde harmatua zen), zeren eta oinbeltzen aurkako egindako borroka, borroka arrazista eta zapaltzailea iduritzen zitzaien; beste batzuek, berriz, abertzale arabeen FLNa hautatu zuten, eta kolonizazioaren aurkako borrokan zuten parte hartu.

Azkenean gertatutakoa ba dakizue. Arabeek gainditu egin zutelara, eta oinbeltz gehienak, iheska, Frantzia aldera joan egin zirela.

Guretzako, ejemplo horrek ba zuen eta ba dauka oraindik inportantzia izugarri bat. Dakizueenez, gure artean beti holako polemika bat gertatu da. Batzuek, espainolen sartze basa eta haundia baino lehen hemen euskal nortasun berezia ba zela defendatu egin dugu, eta, ondorioz, nahiz eta gure borroka abertzalea ez dugula joan den mendetako gizartera itzultzeko egiten, hartuko (edo ez hartuko) ditugula espainolek utzitako gaiak gure interesen eta hedapen propioaren arabera; azken funtsean, eta kasu askotarako, euskalduntasuna definitzen duten faktoreen sortzapena industrializazioa aintzin gertatu zela pentsatzen dugu.

Beste batzuek ez dute gauza bera pentsatzen. Haientzat, euskal nazioaren eraikitze prozesua, mende hontako industralizazioa eta geroko fenomeno hutsa da: ondorioz, eraikitze honetan hemen bizi garen guztiok ari gara parte hartzen, bai sortzez euskaldunak garenak, bai eta kanpotik etorri direnak ere.

Bi jarrerak ez dira inkonziliableak, puntu batean tematzen ez ba gara. Eta puntu hori hauxe da: guretzat, kanpotik etorritakoek parte hartzen dute euskal nazioaren eraikitzean aintzinatik datorren gizartearen segidan integratzen ba dira, eta euskaraz ikasteko borondatea integrazioaren froga seguruarena jotzen dugu. Besteentzat, berriz, ez da aintzinetik etorritako kulturaren integratzeko inongo borondatearik behar «euskaldun» (edo «vasco») izateko, eta kultura espainola kultura euskalduna bezain «vascoa» da.

Hona hemen oraindik askatu gabeko korapiloa, eta hona zergaitik adibideen interesa.

Garai haietan, eta horrelako etsenpluak hartzerakoan, hain finki iruten genuela ez dut nik uste. Batez ere, eta ia besterik gabe, herri zapalduen eskubideak ikusten genituen. Nazionalismoari buruz, nazionalismo iraultzaileari buruz bereziki, zerbait ikasi genuen borroka haietan, eta geroztik gure eramakin teorikoaren parte da.

Baina Algerian gertatutakoa aipatu ba dizuet, kontraesan eta ezinegonen munta agertarazteko izan da.

Esan nahi bait da: garai haietan, eta nazionalismoarekin, bigarren gauza bat onartu genuen, sozialismoa alegia. Eta sozialismoarekin, langileen internazionalismoa. Eta hori onartu genuen nahiz eta nazioari buruz Marx propioak zuen teoria kritikatu, nahiz eta Ekialdeko estadiuek eramandako politika arbuatu ere... Sozialismo iraultzailearen barnean holako dogma bat duzue: munduko langile guztien interesak ez direla kontradiktorioak; eta, nolabait, zapaltzen gaituen kapitalismoaren kontra batasun bat bilatu behar dugula, nahiz eta askotan batasun horren aurkitzea oso zaila izan. Beraz, teoria mailan behintzat, sozialismo iraultzailea onartzen ba dugu, internazionalistak izateko bide bat bilatu behar dugu, kapitala eta multinazionalen aurka... Hori onartu genuen teoria mailan, eta laister lehenengo problemak ikusi genituen.

Gure herrian gertatzen den komunitate desberdinen nahasketan problemak sorburu nagusia duzue. Algeriaren adibidea aipatuz gero, aipa dezadan garai haietako beste bat: Palestinarena.

Arabe eta israeliten arteko lehen gerla haundian, ETAn sozialismoa sartzen ari zen, eta betiko tirabirak ikusi genituen gure artean. Batzuek ziotenez, israelitak merito haundiaz egiten ari ziren nazio bat, eta nazio horren egiteko kemenetan, edozein oztopoa gainditu egin behar zuten; gerlan, gauza haundi bat erakusten ziguten: indarraren balioa, zeren eta indarraren kontra ez ba da indarra jasotzen ez da estatu nazionala eraikitzerik. Beraz, indar honen bidez arabeak uxatu nahi, eta, bidean,

palēstinarrak ere bai haien lurretatik botatzea, gure arteko batzuek onartzen zuten. Neronek, beste askok bezela, ez nuen holan pentsatzen eta, alderantziz, palestiniarren alde ginen. Eta beste pentsamolde bat erabiltzen genuen: israelitek Palestinan bizitzeko zuten eskubide historikoa oso lanbrotsu izanaz, palestiniarrak han zeunden biztanle judu gehienak hara heldu baino lehen. Alde batetik, han zirenen eskubideen alde ginen. Eta, beste alde batetik, ezin genezakeen ahaztu nor zegoen bakoitzaren atzetik eta, bereziki, nor zegoen israeliten atzean: Israel zen (eta da) Mendebaleko Europa eta, batez ere, Estatu Batuen morroi nagusia Ekialde Hurbilean. Eta, zentzu honetan, gure internazionalismo proletarioa zela eta, yankeen kontra egotea premiazkoa zelakoan, palestiniarren alde ezarri ginen.

Beste etsenplu bat. Eta adibide honi ez datzekio soilki internazionalismoaren problema, baizik eta oso barrundik hunkitzen gaituen beste arazo bat: bortxarena. Gaurko egunean egoera bera dela ez nuke hemen esango, baina han entzundako teoriak bizirik irauten duela iduritzen zait... «Indarra behar dugula, gure indarra eskurpulatorik gabe erabili egin behar dugula, eta libre izateko hori dela erremedio bakarra...» Gure artean, holako jarrera eztabaidatu izan da, da eta izango da. Halere, eta nere ustez bederen, edozein etikaz uko egiten duen praktika politika batek ezin dezake askatzailer izan. Gainazalki soilki aipatu dizuet arazo larri hau, eta hitzaldiaren arira itzuliko naiz.

Internazionalismoa, beraz, onartu genuen. Eta internazionalismoak aurkezten ziguten arazo larriena Euskadin bizi diren espainolena da. Horren konpontzeko, teoria eta praktika bat eratu genuen. Gure ustez, sozialista iraultzaileak ginen, eta Euskadiko langileen errepresentanteak ginen. Etorrinen problema konpontzeko burutu genuen teoriak zera zioen: Euskalerrian kontradikzio nazionala zela eta, abertzaleak gogor borrokatzeko prest ginela; iraultza sozialista egiteko eta sozialismoa ekartzeko, indar nagusia gu ginela. Eta, orduan, gurekin ibiliz, Euskadiko langile guztiek ederki ikusiko luketela hemen kapitalismoa baztertzeko eta sozialismoa sortzeko bide zuzenena borroka nazionalista iraultzailea zela. Beraz, garaipena hurbil ikusirik, langile etorkinek onartuko zuten, gizarte praktika iraultzailaren bidez, integrazioaren bidea; eta, alaitasunez gainera, bai eta ere euskaraz ikusiko luketela, agian.

Ederra, teorian, jarrera hori. Gaurregunean, zoritxarrez, aski gezurtatua. Oztopo haundi bat aurkitu genuen bidean (gaur, berbera da): nazionalismoa, nazio eta herri zapaltzaileen nazionalismo basa eta irrazionala. Espainolen nazionalismoari buruz ari naiz, preseski.

Zeren eta, internazionalismoa onartuz, bi aurpegiko prozesua dela ez da ahaztu behar. Internazionalismo honen puntu nagusia, nazio zapaltzaile eta zapalduaren langileen arteko internazionalismoa da, joandaetorriko elkartasuna. Eta, teoriak dioenez, internazionalismo proletarioaren momentu hoberena hau da: nazio zapalduaren langileek etengabeki batasunaren premia sostenganatzen dutenean, nazio zapaltzailaren langileek zapalduak berezitzeko duten eskubidea argiki defendatzen duten bitartean.

Hori, beraz, momentu eta dinamika garbiena.

Ez ginen hara inoiz heldu, eta ez dakit inoiz helduko garenik... Baina momentu batean aski hurbil ginen, eta tenore hori zen Franco hil baino lehenagoko azkeneko urteotan.

Kontextua eta izandako tirabirak aipatuko dizkizuet.

Gure partetik, elkar ulertzeko prozesu hartan, gauza batzu ez genituen inoiz ahaztu nahi:

— gure sorrera nazionalista, adibidez, independentziarako nahikundeari inoiz ez diogulako uko egingo.

— eta Europako herri zapalduekin oso inmediato zitzaigun internazionalismoa, nazio zapalduen askapenaren prozesuan gure borroka ikusten genuen eta ikusten dugulako).

Espainako iraultzaileekin konpontzeko, benetan internazionalista izateko, gauzak ez dira urruneko herri zapalduekin bezain garbi eta inmediato. Halere, irtenbide progresista edo iraultzaile bat asmatzea posible zen.

Estatu federalaren printzipioa, sozialistetik ezkerretara denek onartzen zuten (bai eta sozialistek ere). Konpromezu posiblen, nere ustez, holan formulatzen zen: frankismoaren ondoko prozesuan, ahal zen eta autonomia handiena ematea, autodeterminatzeko eskubidea obratzeko behar diren pausu konkretuak zehaztea, eta autodeterminazioaren ondorioak onartzeko konpromesu argia.

Hori beharrezkoa zen, eta ez zen egin. Zergaitik? Nere ustez, denak hobendun ginen, nahiz eta maila desberdinetan. Aurrera ez joateko arrazoinak ez ziren berdinak gure partetik eta Espainako oposizio «marxistaren» aldetik.

— Espainolen aldetik: bi gauza onartzen zizkiguten espainolek garai haietan; bata, euskaldunek jasaten genuena, zapalkuntza berezi bat zela, eta ez soilki Estatuako besteek jasaten zutena; bestea, frankismoaren kontra borrokatzeko efikazak ginela.

Halere, gauza batzu gelditu ziren aipatu edo argitu gaberik. Hala nola, zapalkuntza nazionalaren natura. Zeren eta holako zapalkuntza delarik, ez bait da aski estatua erruduna dela esatea: estatuarekin batean, edozein herri zapaltzailearen herri arruntak ba du bere kulpa parte, nahiz eta txikia izan. Baina frankismoaren aurkako elkartasuna zela eta, herriz herriko elkar etsaigoa lurperatzea edo ez aipatzea tazitoki onartzen zen.

Beste alde batetik, independentziarako eskubidea bai aipatua izan zen momentu batzuetan, baina laister ahaztua ere. Ezkerretako partidu espainol gehienek, Espainarako federalismoa irtenbide hobea zela esaten zuten eta, teoria mailan behintzat, autodeterminatzeko eskubidea guri dagokigun gauza bat zela onartzen ziguten; baina independentziara heltzeko bidea

zehazteko momentuan, konpromesu konkreturik hartzeko gogorik ez zuten.

Hitz batez: nere ustez, eta espainolen aldetik, euskaldunekin duten konfliktu nazionala ez da inoiz garbiki konponduta izan. Konfliktuaren alde positiboak, frankismoaren aurkako borrokan konkretizatuak, onartuak izan dira; baina bere alde negatiboak, hau da, ez soilki diktadorekin izan nazionalismo espainolarekin kontrajartzen direnak, «ahaztuak» izan ziren argitu gaberik. Eta erdipurdiko jarrera horrek bere ondorioak dakarzkigu gaurregun.

— Baina, euskaldunen aldetik dena garbi garbia izan dela ez nuke esango. ETARI mugatuko naiz, ETA bere zentzu zabalenean ikertuz (hau da, eszizio eta adar gehienek kontua harturik).

Internazionalismoaren problemari buruz, lau jarrera desberdinak berezi daitezke ETA historikoaren bilakaeran:

1).-Jarrera guztiz nazionalista eta interklasista: euskaldunen artean mugatu behar dira aliantzak, espainol guztiak, printzipioz, gure askatasunaren etsaiak direlako. Honen adibide argiena: «Branka» errebistaren inguruan ibiltzen zirenak, edota Granadako langileei buruz atera zen «Zutik» gotorra...

2).-Bigarren hau, nere iduriko, izan da (eta da) dominantea. Jarrera langile eta populista bat da: Euskadi barnean, euskal klase herrikoien artean fronte bat proposatzen du, non langilegoak lehentasuna duen; baina egiazko internazionalismo baten beharrezko edo eragikortasunari buruz mesfindantza handia dauka. Ikertzen ari garan denboretan, internazionalismoaren teoria onartzen zen, baina espainolekin konpromesu zehatz bat lortzeko posibilitateak ez ziren egokitzat jotzen. ETA (m)ak esaten zuenez, espainol langileak, egiazko internazionalistak baldin ba ziren, gure independentziaren alde egon behar ziren: jarrera hau garbiki hartzen ez dutenen artean, ez da internazionalismo egiterik. Eta, honen ondorioz: euskaldunek bai egiten diogu internazionalismoari aportazio bat, eta zera da: gu gara espainol estatuan borrokaren lantza burua, gu gara gogorrenak diktadura eta kapitalismoaren aurka borrokatzeko, eta gure borrokaren ondorioz agiritako egoerak eta praktika iraultzaileak dira gure aportazioak internazionalismoari. Baina, espainolen jarrera negatiba zela eta, ez zen konpromesutara heltzeko biderik.

3).-Hirugarren jarrera bat, langile eta internazionalista gisa definituko nuke. Guztiz minoritaria zen (eta han bertan kokatzen nuen nik neure burua). Zera zioen: bai, egia zela espainol gehienek gure eskubide osoen kontzientzia ez zutela, baina gure erresponsabilitate historikoa asumitu egin behar genuela; nahiz eta Euskalerrian problema nazional berezia izan, eta nahiz eta onartu independentziarako daramagun borroka nagusia dela, garaipena lortzeko ezinbestekoa dela langile espainolekin benetako konpromesua lortzea; eta konpromesua lortzeko bidean, lehengo pausua kontzientzia garbiena daukanak egin behar dituela, hau da, guri

zegokigula internazionalismoaren alde gogorkiena jotzea. Hori defendatzen genuen, eta huts egin genuen.

Hots, gure artean, abertzaleen artean, mesfindantzaren teoriak (bere tendentziekin) inposatu zituen bere ikuspuntuak. Garai haietan, benetako internazionalismoari egin diezaiokegun aportazio nagusia hemen daramagun borroka dela baieztatzea, nahiko teoria ahula iduritzen zitzaidan, baina errealitateak nahiko garbi frogatu zigun hori zela gure arteko ikusmolde nagusia.

4).-Aipa ditzadan EMK, LKI eta beren antzekoak. Ziotenez, nazional menperakuntza suntsitzeko ez zen aski espainol langileekin batasuna lortzea; are eta gehiago, estrategia batu baten barnean borrokatu behar zen zerbait lortzeko eta, azken funtsean, autodeterminatzeko eskubidea ez zela lortuko Espainia osoan egindako iraultzaren barnean ez ba zen. Agian, abertzale eta espainolen arteko zubiaren eginkizuna egokitzen zitzairen, baina polemikak eta ezinulertzeak zirela eta, inongo biderik ez zen hortarako zehaztu. Beraz, abertzaleen partetik, hauk ziren abiapuntu nagusiak:

—lehen: Nazionalismo-Internazionalismo hauzi honetan, doktrina sozialistak eskeintzen duen konpondide bat da autodeterminazioa. Abertzaleen ustez, Euskalerrria autodeterminatu egin da praktika iraultzailearen bidez, eta independentzia aukeratu du; abertzaleen eginkizuna da hautu hori bururaino eramatea.

—bigarrena: Euskalerrirako espainol nazionalismoak eta espainol gehienek duten jarrera ikusirik, inongo konpromesu zehatzik ez da posible, eta euskal internazionalismo iraultzailearen emaitza nagusiak hemen ematen den borrokaren ondorioak dira.

Hona non ginen garai haietan. Frankismoaren aurkako borroka zela eta, Burgosko juizioa, Bitoriako gertakariak, Txiki eta Otaegi, Carrero eta beste hainbeste gertakarien ondorioz, langile espainol eta euskal iraultzaileen arteko harremanentzat momentu hoberenak izanik ere, ahuleziak izan genituen haiek eta geuk. Zergatik? Beharbada, Euskalerrrian ez ginelako aski berezitu mogimendu langile gisa; dudarik ez, Espainan nazionalismoa ikarragarria zelako (eta delako)...

Lehen parte honen ideiak laburtzeko.

Aportazio gisa, internazionalismoaren arazoa dela eta, zer egin dugu abertzaleok? Ez gauza handirik, nere ustez. Gure aportazioak, batez ere, indirektak izan dira (ez dut txarrak direnik esan nahi; beharbada, ezin genezakeen gehiago egin)... Baina bi gauza markatu ditugu argi eta garbi:

1) Euskalerrian ba zela ez soilki betiko nazionalismo burges-interklasista, baizik eta sozialismoa erreibindikatzen zuen mogimendu iraultzaile eta langile bat, eta mogimendu hori oso inportantea zela zapaltzen gintuen frankismoa denen artean hausteko. Ondorioz, egoera haietan ongi sentitu zuten espainolek ez zela posible ezikustearena egitea; eta, nolabait, pauso batzu egin zituzten gugana, autodeterminazioaren eskubidea onartzen

zigutelarik eta, kasu eta textu batzuetan, independentziarako eskubidea ere onartu ziguten, autodeterminazioarako eskubidea behar zen bezela obratzen ba zen. Memoria historikoa oso laburra da gaurregun, baina on da sozialisten eta komunisten jarrerak hemendik zebiltzala gogoratzea.

2) Gero, bigarren aportazioa (ez dakit aportazioa edo ezinaren aitortpena den...) zera zen: Espainan jarrera iraultzaileak ematen ez diren bitartean, guk eramandako borrokari jarraitzea, borroka abertzaleari ukorik ez egitea, denen askapenarako aportazio haundi bat dela.

Gauden egoera aipatzera noakizue.

Nere iduriko, euskaldunak espainolak ez garela eta, internazionalismoaren lehen eremua, eta eremu esankorra, frantsesekin eta espainolekin egin dena da. Euskal borrokaren egiazko dimentsioa ikusirik, espainolekiko internazionalismoa da afera honen giltzarria.

Diktadura kenduta eta demokrazia etorria, Espainarekiko internazionalismoa praktikan emateko oztopoak eta posibilitateak aldatu dira. Eta txarrrako aldatu dira.

Españolen ikuspunduetan, diktaduraren kontra lagungarria zen borroka abertzalea, demokraziaren etsai gorria bihurtu da. Guk borroka bera darabagula sentitzen dugu; espainolek sentitzen dute diferente. Haiengan zerbait kanbiatu dela pentsatu behar da. Nere ustez, Espainan langile mogimenduaren interesak interpretatzen dituzten alderdi eta teorikoak oso interpretapen hestu eta nazionalistak egiten ari dira. Eta interpretapen horien preso gertatu dira.

Oraingo Konstituzioa eztabaidatu zenean, ikaragarria zen horrelako partiduek egin zituzten atzerapenak ikustea: orain, autodeterminazioa ez da aipatzerik, Espainako batasuna ez da diskutitzerik. Are eta gehiago: autodeterminazioaren eskubidea ondo zela Francoren garaian (dena ukatua egoten bait zen), baina gaur, demokrazian, ez da zilegi honelako erreibindikapena ekartzea, bere agertzeak demokrazia kolokan ezartzen duelako... Hona hemen onartarazi nahi digutena. Guretzako, berriz, herri zapalduen naturari eta egoera historikari dagokien eskubidea da autodeterminazioa, eta eskubide hori zilegi izango da herri hori zapaldua izango den bitartean; inongo teoria marxistan edo iraultzailean ezin daiteke autodeterminazioa estatu zapaltzailearen naturari dagokion gauza kontinjente dela onar. Autodeterminazioa obratzeko bide demokratikoa dagokio demokraziari, baina inongo demokraziak ezin du eskubide hori sustitu...

Halere, erantzuna prest digute. «hori eskatzen ba duzue, militarrek mogituko dira, eta, orduan, fini demokrazia! Beraz, guk bezala egin: poliki poliki joan, eta egun batetan botere zibilak lehentasuna lortzen ba du militarren gain, orduan emeki emeki emango dizkizuegu federalismorako eta autodeterminatzeko eskubideak»...

Baina diskurtsoaren parte izkutu-maltzur hau ezin dezakegu sinestu. Hasieran, agian, ukapen horiek egiazko botere famatuak baretzeko takti-

kak ziratekeen. Baina, gaur, ezkertiarren ahoetan Espainako batasuna diskutiezinezko balore bat gisa agertzen da. Dударik ez, esaten eta egiten dena ikusirik, nazionalismo espainola ez dela gehiago holako egokitasun praktikoa bat, baizik eta defendatu behar den egia huts eta sakratua.

Inork ezin dezake nazionalismo irrazionalaren balore eta mamuak arriskurik gabe iratzartu egin. Batasun eta bandera sakratuak behin eta berriz aipatuz gero, ezin joku honetatik ateratzen ahal.

Are eta gehiago: sozialistek burgesiak ezin egin ahal izan zuen España modernoa egin nahi dute; batasun nazionala da modernizazio honen ezinezko parte bat, eta horren lortzeko gogor jokatzeko ari dira, gure kalterako...

Hots, espainolen aldetik ez da internazionalismoaren inongo lekunik. Euskaldunak espainolak garela da ezer baino lehen onartu behar dugun abiapundua, eta nazioz desberdinak ez garenez gero, internazionalismoa ezin daiteke aipatu. Behar bada, espainol eta euskaldunen arteko internazionalismoaren aipatze soila lege antiterroristaren pean izango dateke.

Zer gertatzen da gure artean? Hego eta Ipar Euskalerrian, abertzaleen egoera minorizatu eta txokoratu nahi izaten ari da. Egoerak, errepliege batetara eramaten gaitu. Zer esan edo egin genezakeen gaurregun konpromezu bat eskatzeko? Gure nortasun nazionala eta iraultzailea definitzen duen jite nagusiari uko egitea eskatzen zaigunean, zer komunikazio mota lortu genezakeen?

Eta, ondorioz, gure artean ba al dira oraindik espainolekiko holako aktitude internazionalistak, lehen zirenen bezelaxe?

Ba direla, bai, egia da. Baina oso minoritarioak dira eta, egia esanez, ez dute aintzineko urteotan ziren eztabaida edo polemika bizien antzeko probokatzeko inongo gaitasunik. Gure erresistentzian sinbolo nagusia den ETA (m) azteruz, ez dut aurkitu azkeneko lau urte hauetan inongo erreferentziarik internazionalismoaren problemari buruz. Ba dira, bai, Estatuaren beste aldetan ematen diren borrokei erreferentziak, bai eta solidartatezko jarrerak ere, baina erreflexio teoriko nahiz estrategikoen huts egiten dute. Eta ez da harritzeko. Militanteen artean jaso dudana erantzuna, tankera berakoa izan da alde guztietatik: «Internazionalismoa? Norekin? Espainan mugimendu sozial iraultzailerik ez den bitartean, ez da internazionalismoa egiterik».

Nola heldu gara holako egoera ukakor bati?

Historia kontemporanean, espainol eta euskaldunen artean konfliktu bat dela bistan da. Gure artean, askok ez du espainol izan nahi eta, beraz, ez da delako espainol; espainol askorentzat (gehienentzat, esango nuke...) gu espainolak gara nahi ala ez. Hona hemen konfliktuaren katea. Baina konfliktu bat ez da beti anomiko, suntsikor. Konfliktua sortzen duen egoera aldrebesa agertarazten ba du, eta konfliktua konpontzeko gizarte osoa onerako aldatzen ba da, delako liskarra eraikitor eta positibo izan daiteke. Holako

zerbait gertatu zen Franco hil baino lehen, non euskaldunen eta espainolen arteko konfliktoari gizarte osoa demokratizatzeko eta gizarte osoan iraultza sozialista egiteko borrokan ikusten zitzaion irtenbidea. Gaurregun, guztiz anomikotzat jotzen da.

Hitz batez: nazional afiliazioaren hesparruan ezin daiteke holako konflikto bat konpondu. Espainola izan ala ez, ezin daiteke beste edozein eztabaida edo aliantza baino lehen argitu behan den puntu gisa kontsideratu: irtenbidea, praktika politikaren hesparruan bilatu behar da.

Antifrankismoa, hesparru batukor bat gertatu zitzaigun. Erreforma, berriz, eremu etsaikorra. Hasieratik, erreformaren balioari buruz oso interpretapen desberdinak genituen espainolek eta abertzaleek. Eta, zoritxarrez, etsaigo hau gero eta grabeago da.

Espainol alderdi gehienek, holako interpretapena egiten dute: ematen ari diren pausoek frankismoatik urruntzen gaituzte; beraz, positiboak dira, eta hobe da autonomia zentralismoa baino.

Baina guk beste modu batez ikusten dugu: gure helburua independentzia da, eta pauso bakoitzean aztertzen duguna da ea helburura hurbiltzen edo urruntzen gaituen. Holan ikusita, garbi sentitzen dugu autonomia independentismoa geldiarazteko mamitua izan dela. Lege antiterroristaren pean zuzenki eta preseski erortzen garan abertzale independentistentzat, egoera ez da hobeia Francoren pean izan dugunarekin konparatuz: kontexto orokorrean, Estatuan dugun isolamendua kontutan harturik eta erreprezioaren basakeria ongi neurtuz, askoz gogorragoa gertatzen zaigu. (Adibide gisa: espetxeratu eta exiliatuen egoera; etxera itzultzeko inongo eperik ez da ikusten, errejimenaren eboluzioari dagokionez behintzat...). Beraz, erreforma beste modu batez interpretatzen dugu, guztiz alderantzizkoa.

Eta ez dugu erreforma onartu nahi, haren naturan gure helburuen ukatzea guztiz nabari eta explizito delako. Eta, zer egiten duen sistemak abertzaleekiko? Oso egoera nahasian garela aitortu behar da. Alde batetik, abertzale izateko eskubidea konstituzionalki ukatzen digute, eta, noizbehinka, legearen pisua aplikatzen zaie jarrera abertzale pazifikoenei ere.

Baina, beste alde batetik, ez gure aldetik ez eta estatuaren aldetik ere, ez dago nahiko indarrik apostua irabazteko. Estatuak abertzalismoa zeharo suntsitu nahi badu. Hego Euskadin ejerzitoak soilki egin dezakeen genozidio bat egin beharko luke, eta holako jarrerak oraingo demokrazia osoa pikutara botatzen ahal du. Beraz, ez du Estatuak abertzaleak guztiz ixiltzeko eta hausteko indarrik duela ematen.

Gauza bera abertzaleen aldetik. Etsaia Euskaditik kanporatzeko, edo Estatu osoan independentistek nahi dugun egoera sortarazteko, ez gara gai. Aztertuko ditut bereziki ETA (m) eta Herri Batasuna, beraiek daramatelako borroka abertzalearen parte esankorrena.

ETA (m)aren jarreran, gauzak honela planteiatzen dira (nere ustez, bederen): dagoen egoera ez da demokratikoa, diktadura militar erdi izkutua da;

Euskadirako, beste Estatuto eta beste Konstituzio bat behar dira; hara heltzeko, militarrekin mintzatu edo negoziatu behar da. Baina negoziaketarik ez da izango gure indarraren aurrean makurtzen ez direnen bitartean. Orduan, gogor joko dugu mina emateko, eta ematen dugun minaren arabera izango da lortuko dugun negoziatzeko ahalmena. Beraz, borroka armatua jarraituko dugu negoziatzeko behar den boterea lortzeko.

Nere ustez (eta zoritxarrez) estrategia hau ez da egokia (irabazteko egokia, esan nahi dut). Lehenik, ETA(m)ak ez du ongi aztertu oraingo estatuen natura; European nagusitzen ari den estruktura estatala, ez da aintzineko egitura demokratiko burgesa, baizik eta sistema demokratiko-totalitario bat; esan nahi bai da, egitura eta praktika demokratikak existitzen direla sistemaren kontra ez dagoen gehiengoarentzat, baina, era berean, sistemaren kontra direnei faszismo selektibo eta gogor bat aplikatzen zaie, legeak onartua eta gehiengoaren ongiikusiarekin. Hitz batez, Espainan diren errepresio forma gotorrak eta giza eskubideen ukapenak, ez dira diktadura militar izkutu baten ondorioak, baizik eta Mendebaleko demokrazia burges bati doazkion jite naturalak. Beraz, borroka ez da diktadura militar baten kontra egiten, baizik eta gehiengoaren sostengua daukan gobernu demokratiko-totalitario baten kontra. Eta honek kristoren ondorioak dakarzkigu.

Halere, nahiz eta onartu ejerzitoaren munta oraingo gizartean (eta oraindik oso haundia da, Europako beste estatuetan baino askoz inportanteago), desoreka ikaragarri bat da ETA eta ejerzitoaren artean. ETAk eramandako borroka min esankorra egiten dio estatu zibilarri, eta oso min gutxi ejerzitoaren potentzial armatuari. Jite urbanozko ekintza militar barreiatuak ez dira gauza ejerzitoaren potentzia ikutzeko, eta negoziaketara bultzatzeko.

Hau guzti hau ikusirik, beldur naiz ETAk nahi duen boterez botereko negoziaketa ez dela gertatuko.

HBak, bere aldetik, nahiko gizarte indarra dauka Euskalerrian. Indar hau ezin daiteke boto kopuruaren arabera soilki neurtu: askoz zabalago da. Eguneroko borrokan parte hartzen dutenek askoz indar gehiago dute lau urtetan behin paper bat kutxan ematen dutenek baino. Baina egiazko indar hau ez da aski izan erreformak eramandako bide instituzionala erreforma botatzeko. Honi buruz, HBak egindako apustu gehienetan galdu egin du: Konstituzioa, praktikan, onartua dago; Estatutoa, ez da soilki onartua, administrazio eta gizarte praktika askoren iturburua ere bihurtu da. Oposizioan HBak duen munta, inork ezin diezaioke uka; salakuntza eta borroka-ren sorburua bihurtu da. Baina haren borroka ez da aski indartsua izan Euskadik erreformari uko borobil eta maioritario bat emanarazteko.

Emeki, emeki, botereak abertzaleak isolatu nahi ditu, suntsitu ezinean. Espainan lortu duela bistan da. Euskadin bertan lortzeko zorian dela ematen du noizbehinka: Herri Batasunaren borroka defentsiba bihurtzen ari da. Hitz batez, aski gara (eta hemen, HBan ez gauden abertzale guztiak

ere kontsideratzen ditut), aski gara, diot, erresistentzian jarraitzeko, aski irauteko,... baina ez gara aski irabazteko, epe laburrean edo nahiko hurbilean bederen.

Ezinaren egoera honetan, absurdo dirudi posizio gogorrenetan tematzea eta elkarrizketari printzipiozko uko bat egiteak. Abertzaleen aldetik, desadand KAS delakoaren bost puntu famatuak han direla, eta haien bidez negoziatzeko posibilitate bat apuntatzen dutela. Halere, hemen hurbilagotik ikertu nahi dudana espainolen jarrera da.

Lehen esan dudanez, politikalki, espainolek ez dute euskal nazional arazoa Franco hil baino lehen sentitzen zen bezala interpretatzen; gaur, mehatsu gisa sentitzen dute gure borroka, Espainaren batasuna kolokan ezartzen dugulako, haien nazionalismoaren kaltetan. Eta errepresioarekin erantzuten digute.

Baina nazional sendimenduaren arazoa ezin daiteke inoiz komisaria batetan konpondu... Gure artean, gehienen kaso zera da: historia familiar batetik gatoz, barne historia pertsonal bat ba daukagu: nazional afiliazioa, gerla karlistetatik egundaino datorren nortasun ukatu baten erresistentzian dugu finkatua, eta sendimendu nazionalak ez dira erreflexio teoriko baten ondorio guztiz hotzak. Zerbaitek (gogorkeriak) ixilaraziko gaitu, txarrean; baina ezerrek ez digu sendimendu hori kenduko.

Gauza bera gertatzen zaie espainolei? Ez dut uste. Gure kontzientzia nazionalaren formakuntza herri zapaldu baten egoera bereziari dagokio; espainolen kontzientzia nazionalaren eraikuntza, berriz, estatuari dagokio bereziki. Nazional sendimendua estatuaren obraz hedatzen eta azkartzen da. Halere, erregela batzu berdinak dira nazionalismo guztietan: kontzientzia nazionala berezitzeko, oso inportante da nazioaren etsaiak identifikatzea eta zehazki izendatzea. Estatuak, eskola eta masa komunikabideak erabiltzen ditu, eta eskualde eta kultura desberdinetan sakabanatuak diren herritar -menpekoei nazio- estatuaren iduri uniforme bat ematen die; eta oraingo Espainan, euskal separatistak dira oroen etsai nagusia, gu gara espainoltasun berria lortzeko behar den ispiluango iduri negatiboa.

Beraz, gurekiko jarreretan, nazionalismo irrazionala nahastu da eta espainolen eta euskaldunen artean dagoen konfliktoa konpontzeko bideak isten dizkigute. Berriz ere, haustura politikara, iraultzara, ibiliko den bide politiko bat gertatu beharko zen internazionalismoa posible egiteko. Oso urrun gaude handik, eta gaurregun inork ez du Espainan (inork edo oso gutxik, hobe esanda) honi buruz ezer entzun nahi. Eskeintzen diguten bide bakarra «separatismoa» uztea da, eta denok dakigu gure heriotze propioaren sententzia ez dugula inoiz izenpetuko.

Halere, ondorio latzen garaietan gaude. Inkomunikazio eta ezinulertzearen hobendun nagusiak Espainako politikariak direla esateak ematen digu, bai, arrazoin etikaren kontzientzia; baina indar harremana ez dagokio beti justiziari. Sortu diguten egoera aldrebesaren ondorioek gogor kolpatu gaituzte.

Demagun Euskalerrian dugun biolentzia iraultzailea. Bere eremua, bere zergaitiak, gero eta komunikagaitzak dira, gero eta gehiago bihurtzen ari zaizkigu etsaigoaren sortzaileak. Garai batetan, polizia bat garbitzea zen errepresor baten hiltzea, eta, etika humanista hutsak kondenatzen duen bortizkeria ulerkorra zen borroka politikoaren hesparruan. Gaur, Espainan argiki eta Euskadiko sektore batzuegan ere, holako atentatuak ez dira politikalki onartzen, etikaren izenean kondenatzen dira, eta bortizkeri zapaltzailearen estakuru onartuak bihurtzen dira. Estatuaren nahikundea, nere ustez, zera da: biolentziaren esannahiaren bidez, komunitate abertzale osoaren existentzia eta jarrerak Espaina eta Euskadiko gehiengoei guztiz soportagaitzak egin, zirkulo oker baten hasiera sortzeko; gero eta komunikagaitzagoak atentatuak, gero eta justifikazio gehiago errepresio basa egiteko eta, ondorioz, oraindik desesperatuagoak izango diren erantzun bortitz berriak. Hitz batez, biolentzia eta politika separatu nahi ditu, biolentzia iraultzailea suntsitzeko: minoria desesperatu baten erresistentzia komunikagaitza denez gero, minoria honen suntsitzea justifikatzen da.

Baina abertzaleen lana da zepo honetan ez erortzea. Giza multzo abertzalearen barne kohexioa eta elkarlaguntza da, noski, iraupenaren garantia nagusia. Baina internazionalismoaren problema bere gordinen agertzen zaigu, isolamenduaren kontra eta hesparru politiko iraultzaile batuko baten aldeko borrokan.

Espainolisten borroka famatu hura, orain dela hamar urtekoa, prehistoria da. Gura problema nagusia beste bat da: nazionalismo espainol irrazionalaren problema eta komunikazioaren eza; praktika politika iraultzaile baten gabeziak, internazionalismoaren eremuan etsaigo nazional irrazional batek hartu du protagonismoa.

Horra nola gauregunean internazionalismoa ukatua gertatu zaigun, bai besteen aldetik, bai eta gure aldetik ere bai. Baina honek ez du irtenbiderik ez dela izango esan nahi. Gure iraultzaren jite sozialista mantentzekotan, batasun internazionalistaren bila ibili beharko gara, eta agian egunen batetan berriz ere posible izango da.

Halere, errealista izaki, gauregunean internazionalismo iraultzaileari irekia den praktika politika zabal posiblerik ez da ikusten.

Hirugarren (eta azken) pundua dugu ea honelako errepliege egoeran aportazioak ditugun ala ez... Beste bi punduetan luzatu naiz, eta azken honetan ideia batzu besterik ez dizkizuet azalduko.

Lehen esan dudanez, abertzaleek (eta, hein batetan bederen, euskaldunek) daramatzagun praktika bereziak gero eta komunikagaitzagoak dira Espainarekiko. Honek bere ondorio negatiboak ditu, komunikazioaren ezak internazionalismoa zailtzen duelako eta, denbora berean, errepresioa «justifikatzen» duelako. Baina dena ez da horren negatiboa.

Minorizatu, txokoratu, sentitzen den herri batek, barne komunikazioa sakontzen du, eta etsaiek ezagutzen ez dituzten kodigoak sortzen ditu. Eta

komunikatzeko kodigoak ez dira soilki elkar ulertzeko bideak; eguneroko konportaerak ere determinatzen dituzte.

Txokoratzeak eta zapaltzeak ahultzen dute guregan sistemak duen kontrola. Esan nahi bait da: kontrol poliziakoa gehitzen ari den bitartean, gure erretxazoa ere emendatzen dela. Ikus dezagun xehekiago.

Zertan datza gaurregunean sistemaren indar nagusia? Nere ustez, gizarte eginkizun intimoen kontrolean. Eta buru kontrol hau aski fenomeno berria da. Orain gutxi dela arte, estatuaren eragina oso gain azalki pasatzen zen jendearen kontzientzian; berrogei edo berrogeitamar urte direlako jendea, oso gutxi egoten zen eskolan, goiz lanean hasi behar, masa komunikabideetatik urrun zegoen, eta giza konportaerei buruz zuen kontzientzia etxean hartutakoa edo auzoan ikasitakoa zeukan. Konportaeren kodigoa determinatzeko, estatuak oso eragin gutxi zeukan; tradizioak eta Eleizak zuten indar nagusia. Gurean, Eleizaren eragina oso handia zen; lekuan lekuko kultura eta hizkuntza erabiliz, interesatzen zitzaion konportaera morala gure baitan sartzen zigun; baina holako ondorioa lortzeko, lekuan lekuko tradizioarekin uztartzen zen estuki.

Gaur, gizarte modernoan, estatuak kontrolatzen ez dituen faktoreak ahultzen ari dira: auzoa, tradizioa, erlijioa ere bai, eragina galtzen ari dira. Ahoz transmititzen zen kultura tradizionala pikutara doa. Estatuak, gizarte konportaerak determinatzeko eta kontrolatzeko, bide desberdinak erabiltzen ditu; hiru aipatuko dizkizuet. Bat, eskola; eskolarizazio luze eta sarkorren bidez, kultura eta konportaera esterotipatuak sartzen ari zaizkigu. Bigarrena, masa komunikabideak, eta bereziki telebista; ez du horren sakontzeak balio, ezaguna bait da. Eta hirugarrena, asistentzia edo gizarte laguntzaren bidez.

Azken puntu hau, bai, luzatu behar da. Gero eta gehiago ari gara zergetan pagatzen; gero eta gehiago ere dependentsian gaude. Estatuak garraibideak, argia, komunikabideak, beroa, langabeziaren subsidioa, osasun asistentzia, gaizkigilen aurkako babesgoa eta ez dakit zenbat gauza gehiago ematen dizkigu zuzenki. Babesgo honen gabezia ezin gindezkeela bizi ederki sentiarazten digute.

Eta kasu batzuetan egoera guztiz larritan ikusten dugu geuron burua. Hala nola, azken uholdeetan. Baserri batetan dagonak, putzua, egurra eta agian labea izango eta erabiliko ditu... beste gauza bat da Bilbo Haundiko pisu batetan bizitzea: todoelektriko onartuz gero, eta zerbitzu guztiak porrot eginaz, izorratuak dira. Eta holako egoera katastrofika luzez eta neguan gertatzekotan, Bilboko poblazio erdia hilik gertatuko litzateke: goseak eta hotzak hilik, guztiz dependienteak garelako energia, komunikabide, osasun eta produkzio aldetik.

Estatua gizarte modernoan biziemaile nagusia bihurtzen ari da. Horren trukez, errespetoa eta kontserbadurismoa eskatzen dizkigu. Eta hemen datza gizarte kontrolaren indar nagusia.

Abertzaleen problema beste modu batez aurkezten da. Ekonomian dugun dependetzia bistan da, baina ideologia eta kulturaren guztiz alderantzizkoa da. Poliziak eskeintzen duen babesgoa, arbitrarioa eta tortura bihurtzen zaigu; komunikabideak eskeintzen duten kultura, gure hizkuntza eta kultura propioaren ukapen borobila; eskolak zabaltzen duen kontzientzia nazionala, gure nazioaren suntsitzea... Beraz, gure problema ez da estatuak hemen casadelacultura bat eraiki dezan, edo Miguel Rios sasirokeroa ekar dezan, edo hizlariak promozionatu ditzan. Berriz, ukatua zaigun nortasuna defendatzeko, geronek imajinatu eta sortu behar ditugu eginkizun propioak. Non elkartu eta nola bizi martxan jarri egin behar dugu ez soilki estatuaren laguntzarik gabe, baizik eta estatuaren aurka ere askotan. Abertzaleak gure konportaera sozialak sortzen ari gara, eta hau egingo dugun bitartean, estatuaren eragina ukatzen ibiliko gara. Eta, kontrol hori kolokan ezartzerakoan, ekonomian eta politikan dugun dependetzia kritikatzeko gauza bihurtzen gara, erresistentzia kulturalak estrategia iraultzaile orokor bati ateak zabaltzen dizkiolarik.

Konportaera kultural-politika honek bere ondorioak dakartza. Espainol estatua normalizatu egin nahi dute, Europan sartu egin nahi dute; bitartean, Europa demokratika espainolizatzen ari da, hau da, aintzineko demokrazietan autoritarismoa gero eta nabariago da. Hitz batez, normalizazio hits eta gogor batetara abiatuak gara.

Eta guk, horren kontra egin dezakegu txokoratuak garelako. Estatua ukatzen dugun bitartean, holako kontzientzia konformistatik ateratzea posible dela erakusten ari gara. Beraz, herri zapaldu bat izateak ez ditu bakarrik ondorio txarrak: konportaerazko barne kodigo eta eginkizun komunikagaitzen egiteak biziartzten gaitu eta haustura iraultzailerako tinkaduran mantentzen gaitu.

Eta honek ondorio zabalagoak ditu oraindik. 1982an argitaratuko liburu batetan («National separatism». Cardiff, University of Wales Press), Colin Williams-ek dio: «separatismoa, ezinbesteko asimilazio etnikoari desafioa botatzeko modu bat da». Hau da: historiak daraman abiadak jarraitzen ba du, herri txikien suntsitzea, inguruko herri haundien barnean asimilatzea, guztiz ezinbestekoa da; historia honen lojikaren arabera, euskaldunek desagertu egin behar dugu, gu bezelako herri txikiak kapital eta produkzioaren internazionalizatzearekin lekuri ez dagolako. Produkzioa unitate handietan egiten danean, eta hizkuntza batzuek nazioarteko harremanetan, kultura eta teknikaren produkzioan, kristoren lehenetasuna hartu dutenean, gure kulturak iraun dezan ez da razionala. Separatistak izaki, logika honi botatzen diogu desafioa eta, agian, gure letxe txarrak, gure borrokak biziartzeko gaitu.

Halere, erresistentziak beti molde edo modelo orokor bat eskatzen du, guztiz txokoratu eta desesperatu ez ba du izan nahi. Nere ustez, desagertzea garaman modeloa, handikeriarena da. Hau da, produkzioaren hedapenak gero eta egitura zabalagoak eskatzen ditu, nahiz politikan,

nahiz ekonomian; handikeriak hizkuntz batasuna ere eskatzen du, hizkuntz unibertsa (edo bizpauru hizkuntz dominante) beharrezkoa dela.

Kondenatzen gaituen eboluzioaren aurka borrokatzeko, handikeriarekin hautsiko den moldea da gurea, nere ustez.

Produkzioa desinternazionalizatu, unitate txikietan kokatu, autarkiaz baliatzen den produkzio eta gestio molde modernoak sortu; era berean, estatu zentralista eta guztiz presentearen moldearekin hautsi, autojestioaren kontzeptua berpiztuz... Hona hemen indikazio batzu haustura orokorra egiteko. Euskalerrian sortu nahi ba dugu euskaraz biziko den gizarte bat, dependentzietan hautsi egin beharko genuke.

Txikiari, ulerkorrari, autojestioan eraman daitekeen gizarte kudeatzeari lehentasun ematen dion molde batek askatuko gaitu. Eta molde hau, produkzio zentralizatua eta estatuaren aurka doan iraultza hau, ez da soilki gure askapenarako egokia den bidea: mundu osoan zehar, handikeriak eta estatu handien astakeriak, desastre orokor batetara eramaten gaituzte; humanitatea salba dezakeen iraultza soziala, autojestioa baloratzen duen iraultza kontzeptuan uler daiteke soilki. Gure borroka, beraz, humanitatearen borrokarekin uztartzen da, eta biharamunerako internazionalismo eder bat agintzen digu.

Zoritxarrez, holako iraultza egiteko esperantza ez da gure egungo Europan oso handia, eta egun latzak pasa beharko ditugu oraindik ere.